

# EUSKARA: TOPALEKU BATEN BILA

Mikel Azkarate  
LAU HAIZETARA elkarte

## Euskara bilgune

Herri sena mantenduko bada, pertsonen arteko bilgunek beharrezkoak izaten dira herri batean. Gurean kirol, festa eta kulturaren inguruan izaten du jendeak biltzeko aukera: Touringa, Madalenak, Eskulangintza Azoka... Inork gutxiarik jarriko du zalantzan gertakari horiek guztiak direnik. Modu batean edo bestean, geureak direla sentitzen dugu guztiok gaileteroen herri honetan. Eta horrek, jakina, ez du kentzen hainbat alorretan ikuskera edota hautapen desberdinak egoten direla onartzea.

Zentzu horretan, euskara izan daiteke gure herriarentzat topaleku sendoa, non herritarrak bat etorriko diren eta beren herri identitatea eraiki eta osatuko duten.

Bide beretik, Administrazioaren hizkuntz politikaren helburua da herritarrei sozialki integratzen lagunduko dieten oreka eta topaguneak bilatzea. Hori horrela,

## Lau Haizetara

Era berean, euskal herri askotan egindako bideari jarraituz eta adituek ziotenaren arabera, LAU HAIZETARA euskaldunon elkarte sortu zen gure herrian 1993. urtean, helburu nagusi bakarra zuelarik: euskararen inguruan topalekua izatea.

Helburu hori bete nahian, LAU HAIZETARA herritarrek euskaraz bizitzeko aukerak areagotzeko lana hasi zuen, eta, beste talde eta entitate batzuekin batera, hizkuntza normalizatzeko jardura batzuei ekin die urteotan: euskarazko irakurtzaletasuna bultzatzea eta herriko errealitate desberdinak integrazio lana eginez jasotzea (*Lau Haizetara* herri aldizkaria), herri kultura topagune bihurtzea (Xenpelar bertso eskola, eta Xenpelar kultur



Administrazioak hizkuntz politikaren bitartez herritarrei lagundu behar die hizkuntza askatasunez hautatzen. Horretarako, herritarrak aukera izan behar du herri zerbitzu bat berak hautatzen duen hizkuntzan hartzeko: seme-alaben hezkuntza, igeriketa ikastaro bat, musika tresna baten ikasketa edota udaleku bat. Zentzu horretan, euskararen (ko)ofizialtasuna herritarren eskubideak bermatzeko tresna da.

astea), haurren aisialdia euskaratik bultzatzea (Ttakalo ludoteka)...

Topalekua izateko nahia elkartearen barruan egindako hausnarketan baieztatu dugu azken urte honetan: *Biziberritze* agiria horren emaitza izan da. Eta, zentzu horretan, LAU HAIZETARAK euskararen inguruan pertsonak bildu eta eroso sentitzen lagunduko dien elkarte izaten jarraitu nahi du. Konpromiso hori berritu dugu gustora herritarrekin.